


# tindeHER

*Gazteak euskaraz batuz*

## 1. Kokapena

Euskal Herrian oro har, eta gazteriarengan espezifikoki, azken urtetan euskararen egoeraren ustezko normalizazio baten ilusioa zabaldu da, besteak beste hizkuntza eta nazio auzien inguruan despolitizazio-joera nabarmen bat gertatu den aldi berean. Ildo beretik, Euskal Herriko eskualde desberdinen arteko harremanak eta loturak, eta bereziki Iparraldearen eta Hegoaldearen artekoak, aurretik ere urriak baziren, are gehiago lausotzen joan dira.



Testuinguru horretan, gazteria euskaldunarengan, eta lehenik gazteria militante antolatua, kontzientzia linguistikoa berpiztea eta lurralde desberdinen arteko harremanak (eta ondorioz, elkar ezagutza, afektuak...) sustatzea beharrezkoa ikusten dugu. Horregatik, gaztetxe, gazte asanblada, gazte mugimendu eta bestelako gazte talde eraldatzaileen artean harreman informalak sortzen laguntzeko proiektu bat aurkezten dugu: TindeHER.

Izenak kontrakoa pentsatzera eman badezake ere, helburua (ez behintzat helburu nagusia) ez da maitaleak elkartzea, baizik eta gaztetxe edo gazte-talde desberdinen arteko senidetzeak sortzea, denboran zehar harreman iraunkor bat sortzeko asmoarekin. Hau da, bi gazte mugimenduk haien arteko dinamika informal bat sortu dezaten lortzea da helburua, eta ahal den neurrian, dinamika hori haien herrietara irekitzea, adibidez, urtero bi herrien arteko topaketa-jai bana eginez bakoitzaren herrian.

Harreman horiek sortzeko, ahal dela irizpide batzuk hartuko dira kontutan: Iparralde eta Hegoaldeko herrien arteko loturak sortzea eta euskararen arnagune (herririk euskaldunenak) eta ez oso euskadunen artekoak. Hau da gehienbat tipologia ezberdina daukaten herriak jarriko ditugu elkar harremanean.

Horiez gain, Euskal Herriko egoera politikoaren jakitun izanik, kontutan hartuko dira eragileen baitan dauden joera politiko desberdinen arteko osaketa, aldebiko harreman eroserako baldintzak sortzeko.

## **2. Helburuak**

Helburu orokorra jada azalduta, horren baitan helburu zehatzago batzuk planteatzen ditu TindeHEr proiektuak:

1. Eremu soziolinguistiko desberdinetako gazte euskaldunen (gazte militante antolatuen) arteko harremanak sustatzea, informaltasunetik, aisialdia eta lanketa euskaltzalea uztartuko dituen egunak antolatuz.
2. Elkarrekiko ezagutza horretatik euskararen hizkuntza-kontzientzia handitzea.
3. Pedagogia politiko euskaltzalea egitea.
4. Euskal kultura (produkzio eta erreprodukzioa) sustatzea.

## **3. Dinamika**

- Formularioa bete
- Zure “matxa” ikusi
- Bi herrietako batean egun osoko egitarau bat antolatu, euskara ardatz izango duena